




ENPRESA



**JARDUERA PROTOKOLOA**  
SASOIKO ETA NEKAZARITZAKO LANA EUSKADIN  
**COVID-19**




## 1. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA NEKAZARITZAKO SASOIKO LANA ERABILTZEARI BURUZ



Enpresa eta ustiategi guztiek adierazi eta jakinarazi behar dizkiote datuak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari, **NEKAZARITZAKO SASOIKO LANA ERABILTZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN** baten bitartez.


Datu hauek beharrezkoak dira:



Oraingo kontratazioa eta aurreikusten dena (egunak eta profesionalak)



Aurreikusitako ustiategiak eta jarduera lekuak



Prebentzio zerbitzua



Taldeak eta kuadrillak elkartzea zenbait enpresa eta ustiategitan



Ostatua

**SASOIKO LANGILEAK OSTATATZEKO ERAIKINEN EDO EKIPAMENDUEN ERREGISTROA.**

## 2. KONTINGENTZIA PLANA


*Kontingentzia plana* enpresak/ustiategiak landuko du, eta bere prebentzio taldearen lankidetzaz izan behar du, hainbat alderdi kontuan hartuta:

- PCR kontrolen planifikazioa lanean hasteko.
- Lantokien, postuen, prozesuen eta antolamenduaren azterketa eta ikuskapena, segurtasun distantziak mantendu eta higie arauak bete ahal izateko.
- Jarduerak egingo dituzten langileen berezitasunen azterketa.
- Postu kritikoak identifikatzea eta erreserbako poltsa sortzea.
- Desplazamenduen eta lekualdaketen azterketa.
- Ostatuaren egoeraren azterketa.
- Arriskuarekiko esposizioa eta hedapen posibleak murrizteko neurriak ezartzea, jardueraren beraren zein inguruko jardueren esparruetan.
- Azpikontratazioen presentzia.
- COVIDaren aurreko informazio, prestakuntza eta orientazio beharrak.
- COVIDaren aurreko behar besteko stock eta baliabideak hornitu eta erabilgarri eduki.
- Neurriak mantentzea eta eguneratzea.
- Jarduera protokoloa kasu positibo edo susmagarri bat agertzen bada.

 **KONTINGENTZIA PLANA**

 **JARDUERA ABIARAZTEA**



### 3. KUADRILLAK ANTOLATZEA



Pertsonak kuadrillatan antolatuko dira eta ez dira nahastu behar. Kuadrillak behar bezala erregistratuko dira.




**KONTRATATUTAKO LANGILEEN ZERRENDAREN ERREGISTROA** mantendu behar da, **BAITA AZPIKONTRATATUENA ERE.**



Enpresa eta ustiategietan batera elkartzen diren taldeak eta kuadrillak identifikatu.

### 4. DESPLAZAMENDUAK ETA LEKUALDAKETAK + IBILGAILUEN GARBIKETA



Lekualdaketa kuadrillara egingo dira, nahastea saihestuz.  
 Agintariek garraiorako une bakoitzean ezarritako arauak bete beharko dira.



Erabilitako ibilgailuak maiz garbitu eta desinfektatuko dira, batez ere ukitu ohi diren barne- eta kanpo-gainazal guztiak.

**KANPOKOAK:**


Irekiguneak:  
 ateen markoak,  
 leihatilak eta kapota


Giltzak eta tiragailuak

Atzerako ispiluak

Erregaiaren estalkia

Balbulak





## 5. LANTOKIETAN ARAUDIA EZARTZEA

Lantoki desberdinetan (landa, upategia eta biltegiak) protokoloan ezarritako arau eta gomendio guztiak ezarri behar dira.



**PROTOKOLOA**



